

Bilbon, 2002ko urtarrilaren 25ean

Henrike Knörr, buruordea,
Andolin Eguzkitza, behin-behineko
idazkaria,

Jose Antonio Arana, diruzaina,
Beñat Oihartzabal, Iker Sailburua,
Andres Urrutia, Jagon Sailburua,
Patxi Altuna,
Miren Azkarate,
Jean Louis Davant,
Patxi Goenaga
Andres Iñigo,
Xabier Kintana
Emile Larre,
Frantzisko Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Juan San Martin,
Jose Mari Satrustegi
Piarres Xarriton
eta Patxi Zabaleta euskaltzainak,
Pello Telleria eragile teknikaria.

Batzarra 10:15ean hasten da Euskaltzain-
buruaren zuzendaritzapean Bilboko egoi-
tzan, ezkerreko zutabearen agertzen diren
euskaltzainok bertan daudela. Juan Mari
Lekuonak eta Ibon Sarasolak beren ezin
etorria adierazi dute.

Euskaltzainburuaren hitzak:

- Ongi etorria egiten dio Xabier Kinta-
nari, eta pairatu duen gaisotasun larri-
tik onik atera delarik, guztion izenean
goresmenak ematen.
- Zuzendaritzako kideek Jose Luis Li-
zundiari klinikan egindako bisita aipa-
tzen du, idazkariordeari egin dioten
ebakuntzaren kariaz.
- Ignacio Urkixo Olano euskaltzain ur-
gazlea hil dela ere aipatzen du, h.d., Ju-
lio Urkixo euskaltzain oso zenaren illo-
ba. Henrike Knörr buruordeak eta Jose
Antonio Arana diruzainak ordezkatu
dute gure erakunde euskaltzale eta li-
buruzale handiaren hiletetan.

– Patxi Goenagari zorionak ematen dizkio Eusko Jaurlaritzan Hizkuntza-politika-
rako sailburuorde gisa hartu duen kargu berriarengatik, eta era berean aipatzen,
legezkoa den bezala, Euskaltzaindian zeukan idazkari-karguari uko egin diola,
Euskaltzainburuari bidalitako gutun baten bidez, Haritschelhar jaunak irakurri
duena.

– Euskaldun herritar unibertsalaren epaimahaian Miren Azkarateren ordeztu Henri-
ke Knörr buruordea egonen dela jakinarazten du.

– Kontseiluari «Bai Euskarari» lema Euskaltzaindiarena dela idatziko zaiola dio.

Aurreko batzar-agiria onartzea

Ondoren aurreko batzar-agiriari buruz hainbat iradokizun jaso eta eztabaidatuta,
Patxi Goenaga idazkari ohiak behar diren aldaketak eginen dituela agintzen du.

Nafarroa Behereko Herri-izendegia: (2) Baigorri-Ortzaizeko toponimia nagusia

Patxi Salaberri euskaltzain urgazle eta Onomastika-batzordeko kideari deitzen zaio Nafarroa Behereko herri-izendegiari buruz prestatu duen txostena (*Baigorri-Ortzaizeko toponimia nagusia*) aurkez dezan:

- Lehenengo eta behin, Baigorri eta Ortzaizeko txostena nola egin duen azaltzen du. Txomin Peillenek eta Piarres Xarritonek, edonola ere, Lemoine eta Hatanen lekukotasun eta lanak ez direla kontutan hartzekoak diotsote, erabat txarrak eta faltsuak direlako beraien ustez. Salaberriren aurkezpena entzun eta gero, hurrengo batzarrerako uzten da txostenari buruzko erabakia, bitartean euskaltzainek hura irakurri eta nork bere oharrak egin ahal ditzan.
- Beñat Oihartzabalek galdetzen dio, ia arazo berezirik dagoen kasuren batean. Ezetz diotso Salaberrik, eta izatekotan beharbada Ortzaize eta Azkaratekoen jende-izenak izan daitezkeela arazo, baina besterik ez. Azkenean Jose Mari Sarustegik eskatzen du zehazteko zein egunetararte bidal daitezkeen oharrak. Otsailaren hamalaurarte uzten da orduan oharrak bidaltzeko epea.

Hiztegi Batua: prozeduraren erabakitzea

Aurreko batzarrean gai honi buruz eztabaidatu zirenak kontuan harturik, Hiztegi Batua bururatzeko prozedurari buruz Patxi Goenagak prestatu duen erabaki- eta sintesi-txostena erabiltzen da.

Andres Urrutiak dio, laburpen egoki bat egin duela Goenagak, Azkaratek eta berak egindako proposamenena, baina ez dela agertzen hileru zer gertatuko den, alegia, nor etorriko den hiztegiari buruzko eztabaidak zuzentzeko, lehenago Miren Azkaratek egiten izan duen bezala. Haren ustez, berak egindako txostenean zioen bezala, arduradun berria den Euskara Batuko batzordearen buruak Hiztegi Batuz berba egingen den batzar guztietan agertzeko hitza eman duela jaso beharko litzateke idatziz. Era berean bere kezka azaltzen du, orain arteko izpirituari segituko ote zaion. Bidea eginda dagoela eta bide hori egokia dela. Puntu bi horiek argitu behar direla, alegia, arduradunaren presentzia bermatu eta teknikaren aldetik orain arteko bideari eustea segurtatu. Bere proposamenaren zatia irakurtzen du, non lehenengo puntua zehazten baita. Patxi Goenagak diotso hori berezkoa dela, eta bat datorrela. Andresek aurreko batzarreko eztabaida gogoratuz, errepikatzen du hori segurtatu behar dela lan asko delako egin behar dena, eta ezin daitekeelako bat-batean esan Hiztegi Batuko lantaldearen Burua ez datorrela esan. Miren Azkaratek dio bat datorrela, bai batean eta bai bestean.

Andres Urrutiak dio orduan, Patxi Goenagak egindako laburpenean 9. puntuaren ondoan sartu beharko litzatekeela berak bere 11.ean esandakoa, h.d., Hiztegi Batuaren arduradunak bilkura guztietara joan behar duela, eta Goenagaren laburpeneko 13. puntuan zera gehitu: argitaralpena ohiko moldearen arabera egin behar dela.

Patxi Zabaletak dio, aurreko eztabaida ez duela berpiztu gura, baina bai uste duela idatzizko oharrak bakarrik ontzat jotzea desegokia dela. Horretara, bere ustez, 8. atalekoa utzi behar da alde batera, eta 7.ekoa ez da beharrezkoa, 3.2.atalean jadanik aipatzen delako. Horretaz gain, 14. puntuan, 3.2. puntuan bezala, euskaltzainen burujabetzaren ukapen bat egiten dela dio, eta lehenengo irakurketan ontzat jo zirenak ezin ukituzkoak izatea desegokia dela, euskaltzain osoak baitira halako onarpena egiteko ahala daukatenak.

Pello Salaburuk dio orduan, egin daitekeena zera dela, oharrik gabeko hitzak aurkeztu eta onartu egin daitezkeela, era horretan Akademiaren burujabetza errespetatuko litzatekeelako. Hori 12c.ren segidan sartzea proposatzen du. Proposamendua aho batez jotzen da ontzat.

Patxi Goenagak aldaketa horiek eginen ditu eta *«Hiztegi Batuko bigarren itzulia arintzeko prozedura»* izeneko txostena batzar-agirian eranskin gisa sartuko dela erabakitzen da. Pello Salaburuk, Euskara Batuko batzordearen buruak, nolanihi ere gehitzen du, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea delarik, unibertsitatearekiko arazo bulegokratikoak konpondu bezain laster hasiko dela egotzi zaizkion betebeharretan.

XV. Biltzarraren balorazioa

Euskaltzainburuak XV. Biltzarrari buruzko txostenak guztion eskura daudela karpitetan aipatzen du, eta oharrik ote dagoen galdetzen. Xabier Kintanak, hitza eskatuta, dio bai txostenen aukeraketan, bai eta txosten agerpen publikoan ere, Akademiaren itxura publikoa gorde behar dela. Bere ustez, euskalkien erabilerari buruz XV. Biltzarrean agerturikoak Euskaltzaindiaren orain arteko bideak nahasi ditu eta neurri batez alde batera utzi. Bilbon egindako Biltzarraren zatian, kontrola eskuetatik joan zitzaigula dio. Baionan egindakoari buruz, ostera, zabalkunde-maila ere zaindu behar dela dio, Baionan maila zientifikoa oso ondo zaindu baitzen, ez ordea zabalkundezkoa. Hurrengorako maila biak, erabat zientifikoa eta zabalkundezkoa kontuan hartzea eskatzen du.

Txomin Peillen berak parte hartu zuen mahai-ingurukoak argitratuko ote diren itauntzen du, eta Andres Urrutiak diotso idatzitako testuak argitaratuko direla. Txomin Peillena berarena eta Juan Martin Elexpururena falta direla bakarrik.

X. Kintanak hitza hartzen du ostera ere, eta zera dio, Euskaltzaindiak markaturiko bideari jarraiki egin behar dela txostenen aukeraketan. Erabat kontrakoak, alegia, saihestu behar direla, eta halakoei aukerarik eman ez.

Patxi Goenagak erantzuten dio, bera ez dagoela hainbesteko prest. Edozelan ere, egutegia beteegia izan zela eta elkarrizketarako astirik ez izatea izan daitekeela Kintanak esandakoaren zioa. Kintanak bere jarreraren indargarri Jon Agirre jaunaren txostena ipintzen du adibide, bere ustez lotsagarria izan zelako. Eskubidea eduki, jakina, badaukala, baina ez Euskaltzaindiaren foroan. Beñat Oihartzabalek kontra egiten dio, bere aburuz askatasun hori errespetatu behar delako edozelan ere, txostenak ondo arrazoituta datozen neurrian, eta hori onuragarria dela Akademiarentzat.

Bost euskaltzainen Vox hiztegiari buruzko kezka

Andres Iñigok, bere izenean eta Henrike Knörr, Txomin Peillen, Juan San Martin eta Jose Mari Satrustegiren izenean, hitza eskatzen du *«Euskaltzain guztien jakinerako Onomastika batzordeko euskaltzainek dakarten informazioa»* deritzon txostena aurkezteko.

Andres Iñigok txostena irakurtzen du bere kezka azaltzeko, Ibon Sarasolak zuzendutako Vox hiztegian, Euskal Herriko herrien zerrenda ematean, Onomastika batzordeari egozten zaion erratu-multzoagatik.

Txostena entzun eta gero, eta hainbat iritzi jasota, Euskaltzainburuak proposatzen du Ibon Sarasolari ematea eta beraren erantzuna igurikatzea. Aho batez hala egitea erabakitzen da.

Hiztegia: *agi-ahozuri*

Ondokoak erabakitzen dira:

- **agiantza**: azalpenari erantsi «batez ere onak».
- **agiantzatu**: azalpenari erantsi «batez ere onak».
- **aginduka**: **Adlag.** markarekin sartzen da.
- **agindupe**: azalpenaren bigarren partea kentzen da.
- **agindupeko**: **iz.** markarekin sartzen da eta adibidea gehitzen: «bere zerbitzari eta agindupeko guztiak bidera irten zitzaizkion».
- **aginduzko**: **izlag.** marka gehitzen da eta «aginduzko proba» adibide gisa ipini.
- **agintatu**: zerrendatik kentzen da.
- **agintepide**: idatzi agintepide*, e. **aginbide, eskumen.**
- **agintze**: kendu **g.er.**, gehitu **iz., 1. agintea, 2. agindua.**
- **agirakatu**: h. **agiraka egin.**
- **agorkaitz**: zerrendatik kendu.
- **agorliho**: idatz bedi **agor(-)liho.**
- **agrabiatu***: Bazt., e. **iraindu, laidotu.**
- **agrabio***: Bazt., e. **irain, laido.**
- **agradagarri**: Ipar.
- **agregatu**: gehitu **iz., Tekn.,** eta adibide bat, «agregatu kimikoa».
- **agresibo**: zerrendatik kendu.
- **agudezia**: batez ere **Ipar. Zah.**
- **agudo**: kendu **Heg.** marka.
- **agudoki**: kendu zerrendatik
- **agudotu**: **1. agudoago, lasterrago gertatu, 2. trebatu.**
- **agur esan**: sartu **agur** hitzaren azpisarrera gisa.
- **agurketa**: kendu zerrendatik.
- **agurtza**: **1. gurtza, 2. g.g.er. arrosario.**
- **Ahaide Nagusi**: sartu **ahaide** hitzaren azpisarrera gisa pl. markarekin.
- **ahaidekeria**: zerrendatik kendu.
- **ahaka**: zerrendatik kendu.

Ordu bi eta laurdenetan, Euskaltzainburuak ongi etorria egiten dio Koldo Artolari, Yrizar jaunaren *Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro oriental* izeneko lanaren 2. liburukiaren arduradunari, eta Euskaltzaindiaren eskerrak adierazi eta gero, baztarrari amaiera ematen dio.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Behin-behineko idazkariak
Andolin Eguzkitza